

HEZKUNTZA. Eusko Jaurlaritzak, adostasuna lortu ala ez, Lan Eskaintzari ekiteko asmoa duela ohartarazi dute

Luis Karlos Garcia | GASTEIZ

EILAS, ELA eta LAB sindikatuek ez dute uste gaur egun administrazioarekin akordiorik lortzeko modurik dagoenik; nahiz eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak orain arteko eskaintza «apur bat» hobetu zuen atzo irakaskuntza publiko ez unibertsitarioaren Alorreko Mahaiaren bileran.

Sindikatuak eta Eusko Jaurlaritzak bilera egin zuten Lan Eskaintza Publikoa, langileen egonkortasuna eta ordezkoren zerrendaren kudeaketa aztertzeko asmoz. Alabaina, Lakuak beste eskaintza bat jarri zuen atzo mahai gainean —proposamen ofiziala helarazi zien iragan ostiralean—.

Hiru sindikatuek «eskastzat» hartu zuten bigarren proposamena ere, egonkortasunari buruzko eskaintzak hobera egin bazuen ere. «Ez zen zaila hobetzea, lehendabiziko eskaintzak gaur egungo egonkortasuna

EILAS, ELA eta LABek ez dute onartu Jaurlaritzak atzoko bileran eskainitakoa

Sindikatuak aitortu dute hobetu dela langileen egonkortasunari buruzko proposamena, baina oro har akordioa «urrun» dela diote

errotik desagerrarazi nahi baitzuen», baloratu zuen EILASek prentsa ohar batean.

«Egonkortasuna zabaldu egin behar da»

Ildo beretik, LABek igorritako idatzian dio balizko akordioaren abiapuntuak «egonkortasuna langile gehiagori eskaintzea» behar duela. «Irakasle ezegonkor gehiago egonkortasunean sartu beharra dago. Ez gaude konforme egonkortasuna man-

tentze soilarekin: egoera hori gehiago zabaldu behar da», erantsi zuen gai beraren inguruan EILASek.

ELAk ere Lakuak eskaintza hobetu duela aitortu zuen: «Hobera egin du, baina ez asko. Azken proposamena ez da nahikoa».

Sindikatuak jakinarazi duteenez, oposaketetako lanpostu kopurua ere (1.337 irakasleentzat) «oso eskasa» da. Gainera, LABen arabera, Jaurlaritzak

1994. urtean egindako oposaketaren lanpostuetako %95 bigarren hizkuntza eskakizunekoak ziren, baina zazpi urte igarota, %77ra murriztu nahi ditu.

Bilera erabakigarria egingo dute etzi

Bestalde, sindikatuen beste ezadostasun bat ordezeko langileei dagokio, ez baitute onartzen oposaketetan lortzen den emaitzak inongo eraginik izatea

ordezkoen zerrendan. Sindikatuek eta Administrazioa berriro bilduko dira etzi, ELAk aipatu duenez, «negoziaketan zirt edo zart» egiteko elkarrizketa izango da. Hala eta guztiz ere, EILAS, ELA eta LAB beldur dira Hezkuntza Sailak ez ote dion Lan Eskaintzari ekingo, era unilateralean izanik ere; hots, sindikatuen ezadostasunak izan arren (UGT eta CCOO sindikatuek ez zuten atzo euren jarreraren berri eman, baina Lakuaren eskaintzak ez dituela gogobete azaldu zuten Alorreko Mahaian bertan).

EILAS, ELA eta LABen ustez, «oso larria» izango litzateke Lan Eskaintzaren prozesuari eustea sindikatuen oniritzia izan gabe.

Horregatik, LABek «arduraz jokatzeko» eskatu dio Hezkuntza Sailari. Berdin egin du EILASek ere, eta Administrazioak bere eskaintzak hobetu ezean, akordioa lortzea «oso zaila» izango dela esan du.

GAZTETXEA. Gazteekin ituna egin zuela aitortu du

Cuerda: «Gaztetxea, onartu ez ezik, babestu egin behar da»

L.K.G. | GASTEIZ

Gasteizko gaztetxea, «onartu ez ezik, sostengatu eta babestu ere» egin beharra dagoela esan zuen atzo Jose Angel Cuerda alkate ohiak. Cuerdak, Lourdes Oñederra idazle eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak eta Juan Aceña Soziedad Alkoholika taldeko kantariak lagunduta, prentsaurrekoa eman zuen atzo Gasteizko lokal okupatuaren aldarriekin bat egiteko.

Cuerdak aitortu zuen alkateztan zegoen garaian ituna egin zuela Gazte Asanbladako kideekin, etxea kudeatzen jarraitu ahal izan zezaten zenbait baldintza betetzearren truke; ahozko akordioa izan zela adierazi zuen, baina zuzenbidean idatzi gabeko adostasunak ere bere «balioa» daukela gehitu zuen.

13 urtez errespetatutako akordioa izan zen

Alkate ohiak gogorarazi zuen gazte talde batek lokala okupatu eta «zenbait tirabira» izan zirela hasieran, baina, dena den, denboraren poderioz, alde biek «adostasunaren bidea» urratu zutela.

Era horretan, Gazte Asanbladak 13 urtez errespetatutako akordioa izan zela nabarmendu zuen, «betiere elkarrizketan oinarritutako jarreraren ondorioz». Azken bolada honetan,

ordea, Alfonso Alonsoren eta Gazte Asanbladaren hartuemanik eza nagusi dela kritikatu zuen.

Gasteizko Udalak (PP-UA) iragarri du gaztetxea botatzeko «asmo sendoa» duela. Alonsok esan du lokala «hiriburuarentzat berreskuratu» egin nahi duela. Hala, Alde Zaharreko tontorrean, gaur egungo etxe zaharren orde, turistentzako Dorre-Begiratokia jartzeko planak ditu.

Cuerdaren ustez, «pena» izango litzateke gaztetxea botatzea

Cuerdaren ustetan, «pena» izango litzateke gaztetxea botatzea, Gazte Asanbladak egiten duen lana «aberasgarria» delako.

«Pentsamolde bakarraren garaion, kultura bakarra ere egoten da, eta, bat-batean gazte talde bat agertu da, beste era batera jokatu nahiz adierazteko gogoz», aipatu zuen gazteen ekimenak deskribatzeko asmoz.

Beste alde batetik, Gazte Asanbladak buru-belarri jarraitzen du Gasteizko gizarte taldeekin batera programatutako egitarauan. Orain arte, lokala hartu dute internazionalistek, Hala Bedi Irratiak, antimilitaristek eta beste batzuek, bakoitzari astebete egokituta, eta are ekitaldi gehiago izango dira hemendik otsailera bitartean.

ERASOA. Sugarrek ondoan aparkatuta zeuden bi auto ere kaltetu zituzten



Mezkita bati su eman diote Gasteizko Alde Zaharrean

I.A.A.V. 37 urteko gizona atxilotu zuen atzo Ertzaintzak Gasteizen, mezkita bati su eman izana leporatuta. Atxilotuak ustez gasolinaz likindu zuen Alde Zaharreko mezkita baten atea, eta su eman zion ondoren. Mezkitari su eman ostean ihes egiten saiatu zen, baina ertzainek Pintoreria kalean harrapatu zuten handik denbora gutxira.

Atxilotuak berak gero aitortu zuenez, mezkitari su eman aurretik eztabaida gogorra izan zuen arabiar jatorriko hiru lagunekin, haiek bere bizikleta lapurtzen saiatu zirela-eta. Mezkitako su garrek, era berean, inguruko beste bi auto ere kaltetu zituen, Ertzaintzak esandakoaren arabera.

**CONFECIONES
PINEDO**

Era guztietako jaietarako jantziak

San Antonio K./ 11 - GASTEIZ



**DENDA
BERRIA**

Heraclio Fournier, 15

Tel.: 945 15 53 39

01006 GASTEIZ